

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

KONTROL MOZIOA

Auzoetako festa eragileekiko harremanari buruzkoa

Zigor Etxeburua Urbizuk, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2020ko irailaren 14an Pertsonentzako Zerbitzuen batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Asko dira auzoetako jaiak Donostian, eta hiriaren jai nagusiak ere donostiarren eta elkarten protagonismo eta parte hartzearekin antolatzen dira. Aurten, ordea, maiatzaren 19an, Donostia Festak erakundeak gutun bidez jakinarazi zien festa batzordeei aurtengo udan auzoetako jaiak bertan behera utziko zituela. Erabaki horiek hartzeko orduan, ordea, Udal Gobernuak ez zuen ezer partekatu jaien antolatzaile eta parte hartzaile nagusiak diren eragileekin. Aldebakarrez jardun zuen. Apirilean egin bezala, maiatzean eta ekainean ere EH Bilduren udal taldeak jarrera hori aldatzeko eskariak egin zizkion Udal Gobernuari, eta harreman bide bat zabaltzeko gomendioa egin zion.

Ekaina hasieran, Udal Gobernuak uztaileko eta abuztuko festetako eragileekin elkartu bazen ere, elkarrizketa baino oztopo lasterketa izan zela adierazi zuten festetako batzordeek. Kultur ekimen eta adierazpenak antolatzeko prestasuna azaldu zioten Udal Gobernuari, betiere Covid-19ak baldintzatuta eta osasun agintariak agindutako prebentzio eta segurtasun neurriak zainduta, baina Udal Gobernuaren erantzunak ez zuten erakutsi batere konfiantzarik eragileen antolakuntza gaitasunarekiko. Horrela, Karmengo jaietako eta Zipotz jaietako batzordeek bertan behera utzi zituzten egin asmo zituzten “jai bereziak”. Egoera horren aurrean, ekainaren 25eko udalbatzarrak mozio bat onartu zuen, gehiengoz, eskatzeko Udal Gobernuari jarrera erraztailea erakusteko, eta udako jaien antolatzaile eta parte hartzaile nagusiak diren eragileekin adosteko auzoetako festak eta gainerako agerraldiak birpentsatzeko aukerak, betiere osasun agintariak aldiro ezarritako mugen baldintzak kontuan izanik.

Ekaina amaieran eta uztailean, Altzan ez zen San Martzial jairik izan, ezta Zubietako Santio jairik ere. Azken horretan, ordea, sokadantza egiteaz batera, aurrera eraman zen Usurbilgo Udalaren Kultur Bira, eta zenbait ekintza garatu ziren gutxieneko distantziak eta gainerako osasun neurriak errespetatuta. Loiolako Saninaziotan ez ziren ohiko jaiak egin, baina jai batzordeak lortu zuen aurrera eramatea egoera berezirako moldatutako ekimen sortatxo bat. Aipagarria da jai batzordeko ordezkari batek hedabide bati adierazitakoa: “Donostia Festak-ek izandako jarrera oso negatiboa izan zen. Guk beste jai planteamendu batzuk aurkeztu genizkien, baina erantzuna ezezkoa izan zen denbora guztian. Horren aurrean, gure baliabideak eta ideiak genituenez, gure kabuz zerbait antolatzea erabaki genuen”. Bide beretik, abuztuaren hasieran, egoera berezirako moldatutako ekimen batzuk antolatu zituzten Donostiako Pirattek. Udalak ezarritako baldintzen pean, egun bakarreko egitarau “estatikoa” antolatu zuten. Era berean, kritiko azaldu ziren Udal Gobernuaren “Abuztua Donostian” programa ezagutu zutelarik, “hogei eguneko egitarau oparoan” beraiei debekatutako txaranga, erraldoi eta antzeko ekintzak biltzen zirelako.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

Bestalde, udal taldeekin antolatutako kulturako lan taldean, zinegotzi arduradunak iradoki zuen bazuela gaia lantzeko asmoa iraileko festetako antolatzailerekin. Porrontxo festen batzordea, ordea, kexu azaldu da Udal Gobernuak ez duelako jarri lankidetzarako inolako biderik, eta jaiak bertan behera uztea erabaki dute. Intxaurrondo Zaharreko jai batzordeak ere bertan behera utzi ditu mendeurrenako festak izan behar zutenak, eta baita Jolastokieta eta Aietekoek ere. Txomin Eneako Jai Batzordeak eta Lanberri Auzo Elkartek ere iragarri dute bertan behera utziko dituztela beren auzoko jaiak, jarduera sinboliko batzuk egiteko gogoia baduten arren. Era berean, azpimarratu dute Donostiako Udalak jarritako trabek ere eragina izan dutela beraien erabakian. Halaber, Udal Gobernuak hartutako erabakiekin kritiko azaldu dira ikusirik, auzoko jaiak antolatzeko baimen eta diru-laguntzarik eman ez, baina Udalak "ez-Aste Nagusiko" 24 eguneko egitarau bat antolatu zuela.

Iraileko batzordean, zinegotzi arduradunak festen inguruan adierazi zuen kultur etheen baliabideak eskaini zaizkiela auzoetako eragileei, eta ez duela batzar batean haiekin biltzeko asmorik

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

KONTROL MOZIOA:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari aurkezteko plan bat Donostia Kulturako administrazio kontseiluari, bertan adostu eta onartzeko, helburu izango duena auzoetako jaien antolatzailerekin eta parte hartzaile nagusiak diren eragileekin adostea 2021eko festak eta gainerako kultur agerraldiak osasun neurriak zainduz antolatzeko aukerak, ekainaren 25ean onartutako mozioaren ildoan.

Donostia, 2020ko irailaren 18an

Zigor Etxeburua Urbizu
EH Bildu udal taldeko zinegotzia